

## Garapen Ekonomikorako Lehendakariordea

### **MANU AYERDI OLAIZOLA**

Donostian jaio zen, 1967an.

Deustuko Unibertsitateko Donostiako ESTE Campusean, Enpresa Zientzietan lizentziaduna (1989), eta unibertsitate horrek nahiz Elkargik antolatutako ETEen Kudeaketa Finantzarioko Adituan, graduatu ondokoa (1986). Gaztelania-euskara elebiduna da, ingeles eta frantseseko maila ertain-handia du, txinera mandarineko maila ertain-txikia eta alemaneko oinarrizko ezagutzak ditu.

Bere ibilbide profesionala Ibermaticako Marketin Sailean hasi zuen 1989an, eta 1991n, Alcer, S.L., eraikitzaileerako lanean hasi zen zuzendari ekonomiko-finantzarioa izanik. 2001era arte izan zen kargu horretan eta, aldi berean, Kalitate Sistema, Prebentzio eta Ingurumeneko zuzendari zenbait urtez.

Jarraian, Arian enpresarako lan egin du (2001-2012) zuzendari ekonomiko-finantzario eta zerbitzu korporatiboen zuzendari; eta 2004tik 2011ra konpainiak Txinan egindako jardueraren lege-ordezkaria izan da.

Irakaskuntza-arloan, laurogeigarren hamarkadako lehen urteetan Giza Baliabideen Kudeaketa Ereduak ikasgaiaren irakasle izan da Donostiako Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien fakultatean.

2011ko foru-hauteskundeetan parlamentari hautatu zuten Nafarroa Bai koalizioaren izenean. Parlamentariaren akta berritu zuen 2015eko maiatzeko hauteskundeetan, Geroa Bai koalizioaren kide modura. 2012 eta 2015 artean, PNV-EAJko Napar Buru Batzararren lehendakaria izan da.

2015eko uztailan Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako lehendakariorde izendatu dute.